



1. Buletina, 2012ko maiatzak 2

GENERO BERDINTASUN ALORREKO BULETINA

-AURKIBIDEA-

1. LANTEGIAK ITXITA. KALEAK BETETA. AMANTALAK KALEAN.
2. ESTATUKO AURREKONTU OROKORREN IRAKURKETA FEMINISTA.
3. EMAKUMEEN ASANBLADA IREKIAK: ZABALDU BEHARREKO ESPERIENTZIA.
4. ETXEKO LANGILEEN ERREGIMEN LABORALAREN ERREFORMA.
5. ELAren AMATASUN ETA AITATASUN GIDALIBURUA EGUNERATU DA.



1. “AMANTALAK KALEAN”

Lantokiak itxi egin ziren eta Euskal Herriko kaleak gure eskubide laboral eta sozialen aldeko herri oihartzunaz bete egin ziren pasa den martxoak 29ko greba orokorrean. ELAK egindako antolakuntza ahaleginak eta militantziaren lanak bere fruitua eman zuen, eta Hego Euskal Herrian beste sindikatu eta mugimendu sozialekin batera antolaturiko greba orokorra erabateko arrakasta izan zen.

Eta eguneko lanuztean parte hartu zuten talde, asoziazio eta gizarte mugimendu desberdinen artean, bestelako deialdi berri bat gauzatu zen: Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak bultzaturiko “amantalak kalean” izeneko ekimena. Amantalak balkoi eta leihoetan eskegitzeko deialdia hain zuzen ere, etxeko lanetan eta zaintza lanetan geldialdia adierazteko.

Gure irudipen kolektiboan greba orokorrek produkzioaren geldialdia, lan kateen itxiera, eta horrelakoak irudikatzen badituzte ere, mugimendu feministak aspalditik dihardu lan erreproduktiboa gelditzeko beharra salatzen. Hau da, sistema ekonomiko eta soziala emakumeen lan ikustezinari esker ere mantentzen da; aitortpenik gabekoa eta inolako babes zein eskubiderik gabekoa den etxeko lana eta zaintza ere lana da.

Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxaren deialdiaz gain, joan den martxoak 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, ELAtik “Emakumeok Grebara goaz! Bizitza duin baten alde”ko mezua bota genuen. Eta bizitza duin baten aldeko borrokan jarraituko dugu. Lanaren defentsan, bizi eta lan baldintza duinen defentsan, gaur egun lan bat izateak prekarietatik at egotea bermatzen ez badigu ere, ezta gutxiago ere.

Langile-klasearen borroka gero eta konplexuagoak dira, eta horren aurrean emakumeok badugu zer esana eta zer eginga. Ez gara beste lan sektore bat, indarraren erdia gara! Gizartearen erdia gara, prekarietatean eta ikusten ez diren lanetan gain ordezkatuak bagaude ere, Plataforma Tiranteko kideek abestu zuten bezala (argazkian).



2. ESTATUKO AURREKONTU OROKORREN IRAKURKETA FEMINISTA

Raxoik aurkeztutako aurrekontu orokorren aurrean eta ELAko Azterketa Bulegoak eginiko balorazioa abiapuntu, argitara eraman nahi ditugu onarturiko neurri atzerakoi eta erregresiboek emakumeengan eta beraien eskubideengan dauzkaten ondorio eta eragin ikustezinak.

Merkantzia hutsak eta ez eskubidedun pertsonak garen mundu honetan, emakumeok asko dugu galtzeko; eta zentzu honetan, sexuagatiko lan diskriminazioaren gorakada nabarmena aurreikusten dugu; baina ere, emakumeen lan partehartze eta partehartze sozialaren inguruko kalte konponezinak.

Neurri ekonomiko guztiak ez dira neutralak generoari dagokionez. Eragin desberdinak dauzkate bai gizon eta bai emakumeentzat, bai beratko biztanle zein atzerritarrentzat.

- Europar Batasunak programaturiko murrizketa politikak estatuek aho batez ontzat hartzen dituzte, aurretiaz antolatuta dauden biztanleriaren txirotze politikak dira. Geroz eta feminizatuagoa den pobrezia bat da hau kontara ofizialetan inoiz agertzen ez bada ere. Estratifikazio soziala aldatuz doa, klase sozialen arteko desberdintasunak areagotuz doa eta hor, biztanleriaren erdiak, emakumeok, aparteko gainzaria daramagu gure lan eskubide eta eskubide sozialei dagokienez. (EAEko langabeziaren azken datuak eskandaluzkoak dira: EUSTATEN arabera, azken hiruhilabeteen aurrekoan baino 10.500 emakume okupatu gutxiago daude eta 5.900 gizon okupatu gutxiago).
- Enpresa handien eta bankuen zerbitzura dauden politikek beraien diagnosian on eta zerbitzuen ohiko produkzioaz aparte, ez dute inoiz etxeko ekonomiaren esparrua kontutan hartzen, emakumeek batez ere kudeaturiko esparrua hain zuzen ere. Hori bai, ez dute inolako erreparurik argia edo gasaren prezioa igotzen edota zor publikoaren interesak ordainerazten guzti honek etxeetan, familiengan eta batez ere, emakumeengan dauzkan ondorio kaltegarri guztiekin.
- Administrazio publikoak gupidagabeko politika guzti hauen “biktima” ere badira: soldaten izoztea, 37,5 orduko lan jardunaldiak, betegabeko lanpostuak ez dira beteko, enplegu publikorako oposaketarik ez, etab. Feminizatuz joan diren instituzioak dira administrazio publikoak, “feminizazioa=prekarizazioa” ekuazioa bete betean aplikatzen delarik. Feminizatu egiten den lan sektore oro prekarizatu egiten da.

Hezkuntza zein Osasungintza bezalako bi esparru nagusitan emakumeak gehiengo dira, murrizketen sarraskia biziki ematen ari den esparruetan, hain zuzen ere. Horrela, ongizate estatua kolokan jartzea, enplegu publikoa suntsitzea edota gastu soziala murrizteak, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunean ondorio hilgarriak izango ditu eta baita emakumeen egoera sozial eta lan egoeran ere.

- Politika fiskala. Egungo Espainiako gobernuak boteretsuei amnistia fiskala ematen dien bitartean (iruzurraren apologia bizia eginez), ezkutuko merkatua hedatze garai batetan aurkitzen da. Abagune honetan, kuriosoki, etxeko lana bezalako iharduera bat erregularizatzeko saiakera proposatzen da (tradizionalki ezkutuko lan merkatuan kokaturik dagoen iharduera bat) etxeko langileen erregimenaren aldaketaren bidez. Kurioso da ere, lan sektore honetan langileen %70a egoera administratibo irregularrean dauden emakumeak direla atzerritartasun legearen aldaketa proposamenik gabe. Orduan, zer gertatuko da egoera honetan dauden langile guztiekin?, etxeko lanaren sustapen honek etxeko lana eta zaintza sektorearen aurrean dagoen azpiegitura publikoaren gabeziak bete nahiko ditu?
- Negoziazio kolektiboaren ahultzeak atzerapausu nabarmena suposatuko du genero berdintasuna lan harremanetan txertatzearekoan edota enpresetako berdintasun planen garapenean.

Bestalde, espainiar gobernuaren kontserbadorismoa ez da makroekonomiaren esparrura bakarrik mugatzen, ez; haratago doa, eta gobernu honen kontserbadorismoa zuzen zuzenean emakumeen aurka doa:

- dependentzi legea desagertzen da?, zaintzarako zerbitzu publikoak desagertzen dira?, abortoa kode penalera bueltatzen da?, emakumeak “etxeko jagole” izatera bueltatuko gara?, benetako emakumea ama den emakumea al da?, berdintasunerako erakunde eta zerbitzuak desagertuko al dira?

Agerian gelditu da era honetako neurri eta eskubideak ez dutela inolako lehentasunik eta merke merke saltzen direla. Berdintasun politikek ez dute inolako garrantzirik gobernuentzako orokorrean, eta gutxinaka gutxinaka lortutako garaipen txikiak galduz doaz.

Emakumeak, langile klasearekin batera mobilizatzen jarraituko dugu jakin badakigulako zer den oinarrizko eskubideen galeran gainzaria eramatea. Kalean egotea beharrezkoa da, borroka sindikala partekatutako beste hainbat borrokekin batera lotu behar dugu, mugimendu feministekin kasu. Feminismoa ez delako borroka sektorial bat, borroka guztietan presente dago eta inposaturiko eredu sozial eta ekonomikoaren aurrean alternatiba errealak proposatzen ditu.



3. EMAKUME DELEGATUEN ASANBLADA IREKIAK: ZABALDU BEHARREKO ESPERIENTZIAK.

Askorentzat ezezaguna bada ere, ELAn Ibaizabal Nerbioi eskualdeko Genero Taldea daukagu 2007tik hona.

Talde aitzindaria da, eta ondorengo pertsonak osatzen dute: ELAko Genero Berdintasun alorreko arduradunak, eskualde arduradunak, lau federazioetako (Metala, Hainbat, Gizalan eta Zerbitzuak) ordezkariak, zein eskualde hau osatzen duten hiru herri batzetako (Basauri, Aiala eta Galdakao Arratia) ordezkariak.

Talde honen funtsezko helburua alor konfederalaren eta eskualdeko egituren (Federazioak eta Herri Batzak) arteko bitartekaritza lana egitea da, emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta honen inguruko ekintza sindikalari dagokionez. Honez bidez, Genero Taldeak ahots propioa du eskualdeko batzordean eta eskualdeko egitura desberdinetako agenda eta gai-ordenetan sartuta dago.

Aipaturiko organo egituretatik aparte, Ibaizabal Nerbioiko Genero Taldearen jarduera hedatzeko ilusioz eta ahalegin bat eginez, eskualdeko **emakume delegatuen asanblada irekiak** egin dira. Gizonak esparru honetan parte har badezakete ere, lehenetsuna emakumeen partehartzeari ematen zaio. Gainera, kontutan eduki behar da ia guztiz maskulinizatua dagoen eskualde bati buruz ari garela, bai langilerari, bai gure ordezkariak sindikalari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, gizonak genero berdintasuna gure agenda sindikaleko beste borroka bat bezala barneratzearen garrantzia azpimarratzen dugu, zailtasun eta erresistentzia guztien gainera.

Hain zuzen, emakume delegatuentzako bi asanblada ireki egin ditugu, eta hauek oso balorazio positiboa eduki dute. Lehenengo asanblada iazko ekainaren 17an ospatu genuen, bertan bildu ziren eskualdeko emakume delegatuak elkar ezagutzeko aukera ahalbideratu zelarik. 80 emakume delegatutik 20k parte hartu zuten, gehiengo sektore feminizatuetao delegatuak izaki (adinekoen egoitzak, administrazio publikoa, garbikuntza, lorezaintza, etab); aldiz, Genero Taldeko partaide gehienak sektore maskulinizatuetaoak dira. Asanblada honek mahai gainean jarri zituen ere emakume delegatuen formakuntza interes eta beharrak; zehazki, genero berdintasuna eta formakuntza sindikalaren inguruko interes eta beharrak.

Aurtengo otsailaren 24an ospaturiko bigarren asanbladak are gehiago zehaztu ditu emakume delegatuen formakuntza interes eta beharrak. Bigarren jardunaldi honetan, gainera, sakon aztertu ziren Berdintasun Planen funtzionamendua eta ELAren jarduera Berdintasun Planen aurrean.

Egun honetan 22 emakume delegatuk parte hartu zuten asanbladan, eta ez soilik sektore feminizatuetao emakumeak, Metala edo Hainbat bezalako sektoreetao emakumeak ere izan baitziren. Bigarren batzar honen balorazioa ezin hobea izan da,

betebehar batzuk egiteke uzten baditugu ere: formakuntza sindikala eta formakuntza feministaren arteko uztartzea hurrengo asanblada eta formakuntzetan.

Eskualde honetako esperientzia piloto hauek abiapuntu bezala hartuta, espero dugu horrelako esperientziak beste eskualdeetara zabaltzea.



4. ETXEKO LANGILEEN ERREGIMEN LABORALAREN ERREFORMA.

Joan den urtarrilaren 2an bi arau berri indarrean sartu ziren. Batetik, 1620/2011 Errege-Dekretua, azaroaren 14koa, zeinak etxeko enpleguaren lan-harreman berezia arautzen baitu, eta bestetik, 27/2011 Legea, zeinak etxeko langileak Gizarte-Segurantzako Erregimen orokorrean sartzen baititu.

ELAK esan beharra dauka formalki aitortzen ez zaien arren, etxeko enpleguak ere langile-klasearen kide direla, kolektibo gisa sindikalizatzeko eskubiderik ez duten arren, ezta berriazko hitzarmenik edo antolatutako patronalik ere.

Errealitate hau ez da kasualitatea; gainerako langileen egoera bera ez aitortzea lanaren sexu-zatiketa nabarmenaren ondorio da, eta iritzi batena, hots, kolektibo honen jarduna lan-merkatuan ez dela sartzen uste izatearen ondorioa (horrek enplegu mota hau sarri ezkutuko ekonomiara bultzatzen du). Jarduera hauek bizitza pribatuaren luzapen gisa hartzen dira; sistemari onurak ematen dizkiote, baina horren araberrako eskubide laboralik ez dute sorrarazten. Horregatik, langileok prekarietaterik gordinena pairatzen dute.

Horri gaineratu behar zaio sektore honetan diharduen hiru langiletik bat atzerritarra dela, eta hauetako asko egoera administratibo irregularrean dagoela, xantaia eta esplotazioa jasateko arriskuan alegia.

ERREFORMAREN HOBEKUNTZAK

1. Kontratu idatzi baten exigentzia (soldata, lanaldia eta ordutegia barne, gauzako prestazioak, presentzia-orduak eta hauen banaketa eta ordainsaria ere).
2. 40 orduen truke lanbidearteko gutxieneko soldata jasotzeko eskubidea.
3. Astero etenik gabeko atsedenaldea.
4. Enplegu-emaile bakoitzari Gizarte-Segurantzaren alta emateko exigentzia, etxe bakoitzean lan egiten diren orduengatik¹.
5. Lehenengo ordutik aurrera kotizatuko da.
6. Bajak laugarren egunetik aurrera ordainduko dira.

¹ Aldi baterako, 2012ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarteko epean, langileak altan dituzten enplegu-emaileek Gizarte-Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari datuak eman behar dizkiote, Kotizazio-Kontu Kode bat irekitzeko, baita beren zerbitzutan lanean ari diren beharginen alta gauzatzeko ere, Etxe-Enplegatuentzako Sistema Berezian.

KRITIKAK

1. Langabezia prestaziorako eskubiderik ez da aitortzen oraindik.
2. Kategoria profesionalak ez dira bereizten, eta horrenbestez lan guztien ordaina berbera da.
3. Gizarte-Segurantzaren alta emateaz bere buruaren ardura hartzen duen langilea desagertzen da; horrela atzerriko milaka emakumerentzat lan-baimenak lortu eta berritzeko bidea galarazten da.
4. Legeak ez du aipatzen enplegu-agentzia pribatuak (baimenduta daudenak) zigortuko dituztenik, baldin eta legean jasotakoak baino baldintza okerragoak dituzten eskaintzak bideratzen badituzte.
5. Gauzako prestazioak soldataren zati izango dira aurrerantzean ere; gainera, larriena da portzentajeen arabera deskontatu ahal izango direla, eta ez zenbateko finkoen gainean.

6. Oporraldian jarraian 15 egun hartzeko eskubidea besterik ez dago; gainerako 15ak enplegu-emailearen nahierara banatu ahal izango dira.

7. Lana uzte- edota kaleratze-kalteordainak, 12 eta 20 egun hurrenez-hurren, beste sektoreetakoak baino urriagoak dira.

EXIJENTZIAK

- Atzerritarren Legea moldatu egin behar da Etxeko Enpleguaren Erregimen Laboralaren Erreformara.
- Langileen eskubide laboralak hobetu, Erregimen Orokorreko gainerako sektoreekiko erabateko ekiparazioa lortu arte.
- Lanbidek eta Lan-lkuskaritzak beren egitekoa aintzat hartu eta etxeko enpleguari dagokionez lehen aukera izan behar dute.
- Sail-artekeo politika publikoak, dependentzia egoeran dauden pertsonen arreta bermatuko dutenak.

ELAK esan beharra dauka Erreforma honek zenbait hobekuntza badakar ere etxeko enplegatuen zinezko egoera ez dela konpondu, ez baita berdindu gainerako lan-sektoreekiko eta egindako lanaren aitortza profesionalik ez baitu egiten.

Oinarrizko eta funtsezko eskubide laboralak baztertzen dira, duela gutxi onartutako LANEren Etxeko Enpleguari buruzko 189. Nazioarteko Hitzarmenak zeuden eskubideak hobetzen dituen arren (hitzarmena sinatu duten estatuegk bete beharrekoa da).

Azkenik, ELAK salatzen du Erreforma honek ez duela kontutan izan paperik gabe dagoen milaka immigranteren egoera, eta hauek zigortu egiten dituela bazterte sozial zein ekonomiko larriagoa jasatera.

Martxoak 8
Etxeko langileak
8 **Marzo**
Trabajadoras de hogar

Eskubiderik gabeko sektorea
Sector sin derechos laborales

eta ez dute laguna eta ez dute laneko irizpatsuak hartzen
eta ez dute laneko hitzarmenak
eta ez dute irizpizko kontratuak
eta ez dute garrantzi hitzarmenak
eta ez dute langabatasuneko eskubiderik
eta denak ere ez dute arretarik dagoen garbitze, sukaldaritza, arretak, laneko lekuak, eta lanerik ez dagoen pertsona batenak

eta ez dute ezarritako ezarpenak
eta ez dute ezarritako ezarpenak
eta ez dute ezarritako ezarpenak
eta ez dute ezarritako ezarpenak
eta ez dute ezarritako ezarpenak
eta ez dute ezarritako ezarpenak
eta ez dute ezarritako ezarpenak
eta ez dute ezarritako ezarpenak

LANGILEAK GARBIENAKO
Exigimos nuestros derechos

Langileak gaitzako **ELA** Únete al sindicato

5. ELAko AMATASUN ETA AITATASUN GIDALIBURUA EGUNERATU DA

ELAko Genero-Berdintasun arloak bere garaian kaleratu zen Amatasun eta Aitatasun gidaliburua berriz argitaratu du; lehen bertsioa “Gizon eta emakumeen zinezko berdintasunerako Legea” (3/2007 Lege Organikoa) onartu zenean egin zen. Gidaliburua sindikatuko lokaletan eskuragarri izango duzue laster.

Gidaliburu honekin eguneratu egin dugu oinarritzko eskubideetan egin diren aldaketak kontutan izanik, esaterako amatasuna eta aitatasuna, eta adin txikikoak zaintzeko baimenak, ordainduak eta ordainik gabekoak. Gai honetan konpetentzia duten erakundeen telefono eta helbideak ematen dira ere.

Irakurketa politikoari dagokionez, ELAtik laneko, familiako eta banako bizitza kontziliatu edo bateratzeko eskubidea aldarrikatzen dugu, ukatu ezinako eskubide gisa, eta ez soilik gutxi batzuk eskura duten “pribilegio” bezala. Halaber, bizitza pribatua lan arloarekin kontziliatu beharra ez da konponduko lanaldi partzialeko kontratuak, ez banako eta pribatu diren irtenbideak sustatuz.

Kontziliazioa gure ikuspuntutik eskubide bat da, eta ez da halakotzat hartuko bere oinarria ez bada eragile guztien arteko ardura partekatua: gobernuak, erakunde publikoak eta pribatuak eta gizonezkoak berak.

Gainera, amatasuna babesteko unean-uneke neurri eta laguntzak badauden arren, hauek berez ez dira aski zaintza iraunkorra izateko; honekiko defizit nabarmena dago, eta agerian geratzen da zaintzarako azpiegitura sozial, publiko eta osoko baten gabezia.

Hau ikusirik, baimen parentalek banakoak eta transferiezinak izan behar dutela aldarrikatzen dugu. Neurri konkretu honekin emaitza ezin hobea bermatuta legoke, batik bat emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez.

Baimenak berdinak direnean enpresarioak hasiko dira konturatzen berdintsua dela gizonezko bat edo emakume bat kontratatzea; aitek zaintzaren %50 bete ahal izango dute, eta seme-alabek ikusiko dute bi gurasoentzat garrantzia dutela. Egungo baimenak ematen dituen 13 egunak ez dira aski, ez baitute ahalbidetzen bikoteetan ardura partekatua eta aita zein ama gurasoak zaintzaren eta afektuaren arloan present egotea; izan ere, hau funtsezkoa litzateke ohiko rolak eraldatzeko, zaintzari eta amatasun intentsibo eta eskusiboari dagokienez.

Sindikatuok, bestalde, baditugu eskubideak bermatzeko baliagarri diren oinarritzko bi tresna: Negoziazio kolektiboa eta berdintasun planak; kasu honetan laneko, familiako eta banako bizitza kontziliatzeko eskubidea.

Gidaliburu hau erabilgarria izango zaizuela espero dugu; gure helburua aurrerantzean ere latokietan amatasunarekin eta aitatasunarekin lotutako eskubide, baimen eta lizentziak gauzatzen direla bermatzea izango da.